

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 186/2019 FORU DEKRETUA, abenduaren 10ekoa. Honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoan 2020ko ekitaldian kultura-proiektuak egiteko foru diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira.

Euskal Autonomi Erkidego Osorako Erakundeek eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeek arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, bere 7.a.13) artikulua eskumen eskusiboa ematen die lurralde historikoei, besteak beste, Lurralde Historikoaren interesekoak diren kultur erakundeak sortu eta mantentzeko. Eskumen hori betetzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak, bere eskumeneren barruan, kultura diziplina guztietan bultzatu, sustatu eta hedatzeko helburua duten jardute-lerro batzuk dauzka abian.

Zehazki, administrazio publiko guztiei dagokien sustapen eskumen hori garatzeko, Foru Erakundeak hainbat diru-laguntza ildo ditu, Bizkaiko elkarte, enpresa eta beste toki-erakunde batzuei laguntza emateko beren kultur jarduera gara dezaten.

Esparru horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak besteak beste helburu hauek dituen kultur politika planteatzen du: Bizkaian kalitatezko kultur eskaintza sustatzea, Bizkaiko kultur eragile pribatu eta publikoei laguntza emateko estrategiak sustatzea, eta Bizkaierentzat kultur interesa duten proiektuei laguntza ekonomikoa ematea.

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak, zeinak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen, sail horri eskumen hau esleitzen dio: Bizkaian kultura sustatu eta zabaltzea, gure kulturaren ezagutza eta garapenetik abiatuta eta beste kultura guztiei atek zabalduz.

Eskumen hori gauzatzeko, Foru Dekretu honen bidez beharrezko bitartekoak bideratzen dira, bizkaitarrentzat interesgarria izan daitekeen kultur eskaintza zabal bat, lurralde mailan orekatua dena, izateko. Helburu hori lortzeko, berrikuntza eta diziplinartekotasuna eta diruz lagundutako proiektuetan euskara erabiltzea baloratuko da.

Dekretu hau bost kapitulutan egituratu da. Lehenengo kapituluan hurrengo lau kapituluak xedapen erkideak ezartzen dira, eta kapitulu horietan, hain zuzen ere, araudi honen lau xedeak zehazten dira:

- Xedapen erkideak (I. kapitulua).
- Garrantzi bereziko kultur proiektuetarako diru-laguntzak (II. kapitulua).
- Kultur intereseko proiektuetarako diru-laguntzak (III. kapitulua).
- «Bizkaiko Jaialdiak 2020» Bizkaiko jaialdietarako diru-laguntzak (IV. kapitulua).
- Garrantzi bereziko praktika artistiko garaikideak zabaltzeko programatzen dituzten erakusketak burutzeko diru-laguntzak (V. kapitulua).

Foru Dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak; printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurrez ikusten dira eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen dira (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Foru Dekretu horretan xedatutakoa kontuan hartuta, txosten hauek eman dira Foru Dekretu hau egin denean:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezketasunari buruzko txostena.



Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko Foru Dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2019ko abenduaren 10eko bileran aztertutik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu Bakarra.—Foru Aldundiaren diru-laguntza batzuen oinarriak eta deialdi publikoa onartzea

Bizkaiko Lurralde Historikoan, 2020ko ekitaldian kultur proiektuak egiteko, Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak emango dituen diru-laguntzetarako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira. Ondoren jasotzen da oinarrien eta deialdiaren testua.

I. KAPITULUA

XEDAPEN ERKIDEAK

1. oinarria.—Diru-laguntzaren xedea

1. Foru Dekretu honekin bat etorrita, 2020. urtean Bizkaiko Lurralde Historikoan garatzen diren jarduera hauek diruz lagunduko dira:

- a) Garrantzi bereziko kultura-proiektuak.
- b) Interes kulturalako proiektuak.
- c) «Bizkaiko Jaialdiak 2020» ekitaldiak.
- d) Garrantzi bereziko praktika artistiko garaikideak zabaltzeko programatzen dituzten erakusketak.

Diru-laguntzaren eskaeraren xede den jarduera kategoria horietako baten babesean egin beharko da. Kategoriak baztertzailerak izango dira elkarren artean.

2. Foru Dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira honako hauek:
 - a) Artea, ikus-entzunezkoak eta ikuskizun eszenikoak ekoizteko eta sustatzeko jarduerak eta proiektuak.
 - b) Informatika arloari bakarrik lotutako jarduerak edo proiektuak.
 - c) Bazkideentzako baino ez diren jarduerak.
 - d) Modari buruzko proiektuak.
 - e) Helburu nagusizat emakumeak eta genero berdintasuna sustatzea duten proiektuak.
 - f) Honako hauei buruzko proiektuak: Kabalgata, San Juan Jaiak eta Olentzero.
 - g) Arlo hauei erreferentzia egiten dieten proiektuak: hezkuntza, umeak, gazteria, adinekoak (publikoak sortzea helburu duten proiektuak izan ezik), gizarte-ekin-tza, laguntza sozio-sanitarioa, ingurumena, turismoa, nekazaritza, astia eta aisialdia edo kirolak, gizarte integrazioa eta gizarteratzea, moldatzeko ezintasuna eta gizarte baztertzea, herritarren arteko adiskidetzeta, komunitate-sustapena edo tauromakia.
 - h) Kultur ondareari buruzko proiektuak.



- i) Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo egin beharreko proiektuak.
 - j) Jai egitarauak.
 - k) Euskara sustatzeko programak.
 - l) Irrati eta telebistako programak, baita irratiko eta telebistako emanaldiekin zerkusia duten jarduerak ere.
 - m) Ikasketa-bidaia, txangoak, bisitak, trukeak edo antzekoak.
 - n) Ikastaroak edo antzekoak, nekazaritza edo artisautza azokak eta sukaldaritza txapelketak.
 - ñ) Itzulpenak.
 - o) 2020ko ekitaldian aldizkako argitalpenak euskaraz ateratzen dituzten merkataritza-sozietateei, sozietate kooperatiboei, banakako enpresaburuei, profesionaleri eta irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoei diruz laguntzeko Bizkaiko Foru Aldundiak argitaratzen duen Foru Dekretuaren babesean diruz laguntzekoak izan daitezkeen argitalpenak.
 - p) Sexuaren araberako diskriminazioa egiten duten jarduerak edo proiektuak.
 - q) V. kapituluko proiektuei dagokienez, aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira honako hauek egindako jardueren ondoriozkoak diren erakusketei buruzko proiektuak:
 - 1) Udaletako ikus-arten tailerretan parte hartzen dituzten partaideenak.
 - 2) Akademia pribatuenak.
 - 3) Ikastetxeenak eta irakaskuntza-zentroenak.
 - r) Diru-laguntzen kategoria bakoitza arautzen duten xedapen espezifikoetan ezarritako eskakizunak betetzen ez dituzten proiektuak.
3. Diruz laguntzeko gastuak izango dira, baldin eta indarrean dagoen araudiaren arabera ondo justifikatuta badaude, diruz laguntzen den jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, guztiz beharrezkoak badira eta epe barruan egiten badira.
- Honako hauek ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak:
- a) Erakunde eskatzailearen egitura kudeatzeagatik sortutako gastuak (langileen gastuak, lokalak mantentzeko gastuak eta egitura funtzionala mantentzeko gastuak).
 - b) Ekipo-ondasunak erostea, baldin eta haien amortizazioa luzeagoa bada Foru Dekretu honetan jasotzen diren jarduerak egiteko epea baino.
 - c) Banku-kontuen interes zordunak.
 - d) Interesak, errekareruak eta administrazio-zehapenak eta zehapen penalak.
 - e) Prozedura judizialen gastuak.
 - f) BEZa, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu egin badaiteke. Kasu horretan, BEZik gabe agertu behar dira gastuen zenbatekoak, hala eskaeraren aurrekontuan, nola diru-laguntzaren justifikazioarekin aurkeztuko den aurrekontu burutuan.
 - g) Oro har, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikularekin bat etorrita, beren-beregi kanpo utzitakoak.
- Udalen batek kultur zerbitzuen kontratu integrala kanpoko enpresa bati esleitu badi, aurkeztutako gastuen aurrekontuaren %25 kenduko da, beste erakunde eskatzaile batzuekin parekatzeko, ez baitira aintzat hartzen udaleko kultur sailaren beraren funtzionamenduak sortutako gastuak (langileen gastuak, lokalak mantentzeko gastuak, garbitasuna, segurtasuna, komunikazioak eta inbertsioak, eta abar).
4. Foru Dekretu honen helburua erakunde eskatzaileen ekintzak babestu eta osatzea da; hori dela eta, ez dira inoiz finantzatuko jarduera egiteagatik sortutako gastu guztiak.

**2. oinarria. — Erakunde onuradunak**

1. Foru Dekretu honetan araututako diru-laguntzak honako hauek jaso ditzakete (baldin eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan jasotako ezein egoeratan ez badaude):

- a) Elkartek, fundazio pribatuak eta Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 4ko 61/2000 Dekretuak araututako gizarte-ekimeneko kooperatibak. Erakunde horiek baldintza hauek bete behar dituzte:
 - 1) Sozietatearen egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
 - 2) Dagokion erregistroan inskribatuta egotea.
 - 3) Irabazteko asmorik gabe eratuak izatea.
- b) Bizkaiko Lurralde Historikoko udalak, udal erakunde autonomiadunak, eta mankomunitateak.

Erakunde horiek V. kapituluko diru-laguntzen onuradun izateko eskakizuna egiten badute, baldintza hauek bete beharko dituzte, nahitaez:

- 1) Erakusketa-areto gisa erabiltzeko kultur ekipamenduak edukitzea, udal jabetzakoak edo itundutakoak, betiere ekipamenduok erabilera horretarako beharrezkoak diren baldintzak betetzen badituzte.
 - 2) Halako ekipamenduetarako ezarrita dauden segurtasun-neurriak betetzea.
 - 3) Aretoak arduradun bat izatea.
 - 4) Aretoa zainduta egotea, jendearentzat zabalik dagoen orduetan.
 - 5) Egunean gutxienez ere lau orduz irekita egotea jendearentzat (goizez eta/edo arratsalde).
2. Foru Dekretu honen aplikazio eremutik kanpo daude honako hauek:
- a) Bizkaiko Foru Aldundia patronatuko kide duten fundazioak, baldin eta Aldundiaren ekarpen ekonomikoa jasotzen badute beren kultur proiektuak kudeatzeko.
 - b) Diruz-laguntzeko eskatzen den kultur proiektua antolatzen ez duten erakunde eskatzaileak.
 - c) Administrazio-bidean, lan-arloan edo zigor-arloan berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik zehapen irmoa izan duten erakunde eskatzaileak.
 - d) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren aurka dauden helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituztenak.
 - e) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen III. tituluaren, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenak.

3. oinarria. — Aplikatu beharreko araudia

Foru Dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua, eta, haien guztien osagarri moduan, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea eta beste edozein arau xedapen, duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

Bestalde, 2.1.b) oinarriko erakundeek, Bizkaiko Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 2. artikulua aintzat harturik, urtean aurreikusten dituzten diru-sarrerak, guztira adierazi behar dituzte.

**4. oinarria. — Arau-hausteak eta zehapenak**

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. tituluan ere.

5. oinarria. — Eskabideak aurkezteko lekua eta epea

1. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2.a) artikulua arabera, diru-laguntzetarako eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira (<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>).

2. Eskabideak aurkezteko epea 2020ko urtarrilaren 7tik otsailaren 13ra izango da, egun bi horiek barne.

6. oinarria. — Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak

1. Eskabideak aurkezteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan bete eta aurkezteko dauden eredu espezifikoak erabili behar dira (<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>), 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan ezarritakoarekin bat.

Eskabide bakoitza proiektu bakarrari buruzkoa izan behar da.

Ez dira onartuko proiektu bat baino gehiagori buruzkoak diren eskabideak, ez eta erakunde eskatzaileen urteko jardueren programazioari lotutakoak ere. Zenbat proiektutarako eskatzen den diru-laguntza, beste horrenbeste eskabide aurkeztu behar dira.

2. Banku-helbideraketaren fitxa, behar bezala beteta erantsi beharko da.

Dokumentazio hau ez da aurkeztu beharko baldin eta aurretiaz aurkeztu bada Foru Aldundi honetako Kultur Ekintza Zerbitzuan, eta ez bada aldaketarik egon azken hiru urteetan.

3. Elkarteen, fundazio pribatuen eta gizarte-ekimeneko kooperatiben kasuan, aipatutako dokumentazioaz gain, hauek ere aurkeztu beharko dituzte:

- a) Eskatzailearen IFZren fotokopia.
- b) Dagokion erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria.
- c) Erakundearen estatutuak edo haren osaketa egiaztatzen duten agiriak.

Aurreko ataletan aipatutako agiriak erakunde hauek bakarrik aurkeztu beharko dituzte: sortu berri diren erakundeak, azken hiru urteetan aldaketak izan dituztenak, eta Kultur Ekintzako Zerbitzuan aurretik diru-laguntzarako eskabidea aurkeztu ez dutenak.

- d) Elkarteen, fundazioaren edo gizarte-ekimeneko kooperatibaren kide anitzeko gobernu-organoko kideen kopurua jasotzen duen txostena; sexuaren arabera bereizi behar dira kideak, eta bereziki adierazi behar da zer generokoa den elkarte edo fundazioko burua. Gobernu-organoko idazkaritzak sinatu beharko du txostena.

4. Eskaera guztiek programatutako jardueraren proiektu xehatua aurkeztu beharko dute. Honako hau zehaztu behar du, gutxienez:

- a) Proiektuaren deskribapena eta azalpen-memoria. Proiektua osatzen duten jarduerak zehaztuko dira eta jarduera egiteko beharra azalduko da, diziplina eta jarduera eskaintzen den lurralde-eremua kontuan hartuta.
- b) Lortu nahi diren helburuak.
- c) Proiektua non eta noiz egingo den.

5. Kultur intereseko proiektuetarako (III. kap) eskaeretan datu eta agiri hauek agertu beharko dira:

- a) Dekretu honetako 22. oinarrian ezarritako ebaluazio-irizpidearen arabera proiektua aberatsago egiten duten ezaugarriak (urteurrenak, jarduera osagarriak, gara-



penaren egun-kopurua, berrikuntza eta diziplinartekotasuna) proiektuaren azalpen-memorian zehaztuko dira.

- b) Proiektuan euskarak duen erabilera azaltzen duen txostena.
- c) Udalak, Udal erakunde autonomoak, eta udalerrien mankomunitateak badira:
 - 1) Eskabidea egiten duen udaleko idazkariak edo kontu-hartzaileak emandako ziurtagiria; ziurtagiri horretan adieraziko da zenbat biztanle dituen udalerririk, eskabidea egiten den unean eta indarrean den biztanleriaren azken erroldaren arabera.
 - 2) Udaleko idazkariak edo kontu-hartzaileak emandako ziurtagiria; ziurtagiri horretan, 2020. urterako kulturazko izendatutako aurrekontu-partida adieraziko da (arlotan hauek kenduta: euskara, gazteria, kirolak, hezkuntza eta gizarte-ekintza; halaber kendu behar dira jaiak eta astialdiari lotutako herri-antzezpenak ere: Kabalgata, San Juan Jaiak eta Olentzero). 2020ko aurrekontua onartu barik egongo balitz, indarrean dagoen luzatutako aurrekontuari buruzko aipamena duten gastuak bidaliko lirateke.

6. «Bizkaiko Jaialdiak 2020» (IV. kapitulua) ekimenerako diru-laguntzen eskaerakin batera, musika, antzerki edo dantza taldeen parte-hartzeari, jatorriari eta beka-dunei buruzko txostena aurkeztu beharko da, Foru Dekretu honen 24. oinarriaren arabera baloratzeko.

7. Garrantzi bereziko praktika artistiko garaikideak zabaltzeko erakusketak diruz laguntzeko (V. kap.) aurkeztutako eskabideekin batera, dokumentazio orokorrak gainera, erakusketa bakoitzaren proiektua aurkeztu beharko da, helburuak eta edukia zehaztuta. Proiektuan hauek jaso behar dira:

- 1) Erakutsiko diren lanen egilearen biografia edo curriculum-vitaea.
- 2) Hala behar denean, lana erakusgai duten bizkaitarren erroldatze-ziurtagiria, jaiotza-ziurtagiria edo NANaren fotokopia.
- 3) Hala behar denan, komisaioaren izena eta curriculum.
- 4) Erakusketa iragartzeko kartelaren diseinua eta, hala badagokio, katalogoarena.
- 5) Hala behar denean, visita gidatuak egiteko aurreikusitako daten zerrenda, bisiten hizkuntza, eta bisiten arduradunaren identitatea.

Udalerririk batzuetan egiten den erakusketa koordinatu bat bada, proiektu koordinatuan parte hartzen duen erakunde bakoitzak egin beharko du bere eskabidea, eta berriaz adierazi beharko du proiektua bere udalerrian egiteak sortzen duen gastua. Horrez gainera, egoitzan dagoen eredia erabilia, erakusketen ibilbidea adierazi beharko da, datuak, herria eta lekua zehaztuta.

8. Bizkaiko Foru Aldundiak egiaztatu egingo ditu eskabidearen sinatzailearen identitateari buruzko datuak.

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak eskatzailearen banku-kontuaren titulartasun-datuak, egiaztatuko ditu, betiere eskatzaileek berriaz uko egiten ez badiote horri.

Datu pertsonalak eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat, bai eta Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat etorritik.

9. Horrez gainera, eskaera hau sinatuta baimena ematen zaio Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailari Ogasunaren, eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak eskatzeko, Diru-laguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 21.3 artikuluan ezarritako ondorioetarako. Horretarako, beharrezkoa da egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

7. oinarria. — Eskabideak zuzentzea eta hobetzea

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru-dekretu honetan eskatutako agiri-takoren bat aurkeztu ez bada, errekerimendu egingo zaio



erakunde eskatzaileari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu dezan edo beharrezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

Ebazpen horrek administrazio bidea agortzen du, eta, beronen aurka, aukerako berzartze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu andreari, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, aipatu den modu berean zenbatzen hasitako bi hilabeteko epean.

2. Edonola ere, Kultur Ekintzako Zerbitzuak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

8. oinarria.— Diru-laguntzak emateko araubidea

Diru-laguntzak norgehiagoka sistemaren bidez emango dira, hau da, aurkeztutako eskabideak erkatuko dira, eta, Foru Dekretu honen 20, 22, 24 eta 26 oinarrietan ezarritako ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta, aurkeztutako eskabideen arteko lehentasun-hurrenkera ezarriko da.

9. oinarria.— Epaimahai kalifikatzailea

1. Epaimahai kalifikatzaile bat osatuko da aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko. Epaimahaikideak Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak izendatuko ditu, foru agindu bidez. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Aginduaren 44 artikuluan ezarritakoa beteko da.

2. Epaimahai kalifikatzaileak diru-laguntzak puntuaziorik altuenak lortu dituztenei emateko proposamena aurkeztuko du, betiere aurrekontuko partidan ezarritako zenbaterakoa muga izanik. Epaimahaiak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari, hark behin betiko ebazpena eman dezan.

10. oinarria.— Aholkularitza

Foru Dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko beharrezkoa den laguntza tekniko edo aholkularitza eskainiko ditu Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kultura Ekintzako Zerbitzuak. Horretarako, helbide hau dago erabilgarri webean: <http://www.bizkaia.eus/laguntzaileKulturEkintza>

11. oinarria.— Ebazpena

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4. artikuluan xedatutakoa bezalaxe, deialdi honetan, interesdunei ez zaie, lehenbizi behin-behineko ebazpen-proposamena eman, eta, gero, entzunaldiaren izapidea eskainiko, zeren prozeduran interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak besterik ez baitira jaso eta kontuan hartuko.

2. Deialdia ebatzi aurretik, Kultur Ekintzako Zerbitzuak egiaztatuko du ea eskatzaileek egunean dituzten tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun dirulaguntza itzuli behar dutela-eta. Egiaztapen hori egin ondoren, eskatzailearen batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen ikusten bada, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio hori egiten ez badu bere eskabidean atzera egingo dela, behin ebazpena emanda.

3. Eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko epea sei (6) hilabetekoa izango da gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta.

Epe hori eskabideari buruzko ebazpen espresurik eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsitatzeko da; hala ere, geroago ebazpen espresua eman ahal izango da.



4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru-agindua deialdi publiko honen erakunde interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Egoitzan agertzeko sistemaren bidez ere jakinaraziko da.

Jakinarazpenean, berariaz jasoko da ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela eta haren aurka errekurso hauek aurkez ditzaketela behean adierazitako interesdunek:

- a) Administrazio publiko interesdunak: bi hilabete izango ditu, ebazpen hau jakinarazten zaion egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Aurrez errekerimendua egin bada —Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan zehazten denaren arabera—, orduan, errekursoa aurkezteko epea beren-beregiko erabakiaren jakinarazpena jaso eta biharamunean hasiko da zenbatzen edo, bestela, ustez ezetsizat jo eta biharamunean.
- b) Pertsona interesdunak: foru agindu horren aurka aukerako berraztertze errekursoa jar dezake, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko Saileko foru diputatu andrearen aurrean, hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekursoa bi (2) hilabeteko epearen barruan; epeok jakinarazpena egin eta biharamunean hasiko dira zenbatzen.

12. oinarria. — Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna

1. Foru Dekretu honetako diru-laguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administraziok edo erakunde publikok zein pribatuk ematen dituen diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin (Bizkaiko Foru Aldundiak ematen dituenak izan ezik).

2. Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatzen bada, eta betiere aldi berean udalerrietako, autonomia-erkidegoetako, Estatuko edo nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko batek emandako beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat lortzen bada, gerta liteke diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea, zeren foru-dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen zenbatekoa, bakarrik zein beste diru-laguntza edo laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin bat eginda, inola ere ezin baita izan onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

13. oinarria. — Diru-laguntza ordaintzea

1. Deialdi hau ebazteko ematen den foru agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo hamar (10) egun baliodunetan erakunde onuradunak ez badio beren beregi eta idatziz uko egiten, diru-laguntza onartu duela ulertuko da.

Deialdi honen ebazpena dela-eta onuradun batek edo batzuek uko egiten badiete emandako diru-laguntzei, horrek ez du aldaketarik eragingo ebazpenean jasota dauden eta onuradunei jakinarazi zaizkien diru-laguntzen zenbatekoetan.

Diru-laguntza eman dela Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, hamar (10) egun baliodun igaro eta berehala, Kultur Ekintzako Zerbitzuak hari dagokion zenbatekoaren ordainketa izapidetuko du Ogasun eta Finantzen Foru Sailean, eta erakunde onuradunei ez zaie horretarako inolako bermerik eskatuko.

2. Diru-laguntza ordaindu baino lehen, onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da. Halaber, egiaztatuko du ez direla zordun dirulaguntza itzuli behar dutela-eta.

Egiaztapena egin ondoren ikusten bada onuradunetako batek betebehar horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio hamar (10) eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, emandako diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko duela.

14. oinarria. — Diru-laguntza onuradunaren borondatez itzultzea

1. 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da,



2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena), onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako diru-laguntza, foru erakundeak aurretik hala eskatu gabe.

Halakoetan, Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza benetan itzultzen den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatuko ditu, aipatutako 76. artikuluan eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

2. Erakunde onuradunak ordainketa-gutun bat erabili behar du diru-laguntza forala bere ekimenez itzultzeko. Ordainketa-gutun hori Kultur Ekintzako Zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutunean honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia. Itzuli behar den diru-laguntza ere aipatu behar da.

3. Diru-laguntzaren onuradunak finantza-erakunde batean ordainketa egin ondoren, ordainketaren kopia edo diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuari.

15. oinarria. — Justifikazioa egiteko epea eta era

Foru Dekretu honen bitartez araututako diru-laguntzen erakunde onuradunek honako konpromiso hauek bete beharko dituzte:

1. 2020an diru-laguntza ematea eragin duen jarduera gauzatzea.
2. Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako diru-laguntzei buruzko Erregelamenduaren 60. artikuluekin bat etorrira, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren aurrean justifikatzea jarduerak egin direla, laguntza ematea eragin zuten baldintzak bete direla, eta diruz lagundu den proiektuari dagokion gastua nola aplikatu den ere bai. Horretarako, honako agiri hauek aurkeztu behar dira, egoitzan, 2021eko martxoaren 18ra arte (egun hori barne):
 - a) Diru-laguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla justifikatzen duen jarduera-memoria, egindako jarduerak eta lorturiko emaitzak adierazita.
 - b) Egindako jardueren kostua justifikatzen duen txosten ekonomikoa, honako alderdi hauek jasotzen dituena:
 - 1) Proiektuari egotzitako sarreraren eta gastuen egoera-orria, egoitzan dagoen ereduaren arabera.
 - 2) Gastu-partida bakoitzean, diru-laguntza jaso duen jardueraren gastuen zerrenda.
 - 3) Bizkaiko Foru Aldundiak berak egoki iritzitako laginketa-teknikak aplikatuko ditu frogagiriok egiaztatzerakoan, diru-laguntza egoki aplikatzeari buruzko zentzuzko ebidentziak lortu ahal izateko. Eta, horretarako, onuradunari eskatu ahal izango dio bidaltzeko aukeratutako gastu-egiaztagirien kopiak, bai eta haiek ordaindu izanaren egiaztagiria ere.
 - 4) Diruz laguntzeko gastuaren aurrekontua justifikatzeko, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, foru diru-laguntzaren erakunde onuradunak egiaztagiria aurkeztu behar ditu, gutxienez hiru hornitzailek egin dizkioten eskaintzak justifikatzeko, baldin eta administrazio-kontrataziorako araudian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen badira, salbu eta kontratuaren ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago halakorik egin dezakeen erakunde nahikorik edo gastua eskabidea aurkeztu aurretik egin bada.
 - 5) Egitaraua gauzatzeko prestatutako esku-egitarau, kartel, argazki, argitalpen, ikus-entzunezko eta informatikako materialen aleak, baita beste edozein motatako agiri grafikoren aleak ere; haietan, erraz ikusteko eran agertu behar da jarduera horretarako Bizkaiko Foru Aldundiak diru-laguntza eman duela. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-elementuak sartuko dira material horietan, foru-dekretu honen 16. oinarriaren e) letran ezarritakoarekin bat etorrira. Betebehar hori laguntza eman zaiela jakinarazi ondoren egindako jardueri bakarrik dagokie.

**16. oinarria. — Diru-laguntzaren onuradunaren beste betebeharrak**

Onuradunak betebeharrak hauek ere izango ditu:

- a) Diru-laguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein alderdi objektibo edo subjektibok aldaketarik izan badu, horren berri ematea diru-laguntza eman dionari.
- b) Jardueraren hasiera-dataren eta amaiera-dataren berri ematea diru-laguntza eman dionari, idatziz. Halaber, diruz lagundutako jarduera kontrolatzeko, haren jarraipen egiteko edo jarduera ikuskatzeko eginkizunak edo ahalmenak gauzatzeko lanak erraztu beharko ditu.
- c) Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailari laguntzea, hala eskatzen bazaio, eta kultura arloko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).
- d) Euskara, Kultura eta Kirol Foru Sailak, Ogasun eta Finantzen Foru Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen-jarduerak onartzea.
- e) Diru-laguntza eman ondoren editatutako material guztietan eta jendaurreko agerpen guztietan, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa agerraraztea. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren irudi korporatiboan ezarritako elementuak baliatuko dira, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da, hitzez hitz:
«Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».
Euskara hutsean garatutako proiektuetan, gainera, euskararen txantxangorriaren irudia sartu beharko da.
- f) EAEko hizkuntza ofizial biak erabiltzea diru-laguntzaren xede den jardueraren publizitatean eta zabalkundeetan, bai euskarri grafikoan bai ikus-entzunezko komunikabideetan (era guztietako iragarkiak, kartelak, liburuxkak, eta abar).
- g) Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizio, sarbide, kontratazio eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonal, lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzearen arloan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikal, ordezkaritza eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta.
- h) Zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan.
- i) Diruz lagundutako proiektua gauzatzen den bitartean, ez erabiltzea hizkera sexistarik dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan eta gisakoetan (idatzizkoetan zein digitaletan), eta pertsonen buruzko edozein estatistikatan datuak sexuaren arabera bereiz jasotzea, hala ezartzen baitu arlo horretan gorde behar diren printzipio nagusiak jasotzen dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3 artikulua.
- j) 250 langiletik gora izanez gero, egiaztatu behar da Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legean ezarritakoarekin bat datorren plan bat dutela emakumeen eta gizonen berdintasunerako, eta benetan aplikatzen dutela. Horretarako, betebeharrak hori betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute justifikazioarekin batera.
- k) Plantillan hamabost langiletik gora izanez gero, bermatu beharko dute neurriak hartzen dituztela lan-arloan emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, hari aurre egiteko, haren jarraipena egiteko, hura ebaluatzeko eta desagerrarazteko, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko.



Horretarako, betebeharrak hori betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute justifikazioarekin batera.

- l) Deialdi honi dagokionez, diru-laguntza foral baten onuradunek bete egin behar dituzte 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan eta Diru-laguntzen Erregelamendua-ren 53. artikuluan azpikontratazioa dela-eta zehazten diren betekizunak eta debekuak.
Onartutako azpikontratazioaren gehienezko ehunekoa diruz lagundutako jardueraren %90 izango da.
- m) Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Diru-laguntzen Erregelamendua-ren 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerakoak.

17. oinarria. — Itzulketa

1. Jasotako diru-laguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta ez badira betetzen aurreko oinarrietan, 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo foru arau hori garatzen duen Erregelamenduan jasotako betebeharratariko bat edo batzuk. Besteak beste, honelakorik gertatzen bada:

- a) Justifikatu beharra betetzen ez bada.
- b) Emandako diru-laguntzari dagokion helburua bete ez bada.
- c) Proiektua egiteko epea bete ez bada.
- d) Diru-laguntza horretarako eskatutako baldintzak bete gabe lortu bada.
- e) Ezarritako kontrol-jarduerak egiteari uko egiten bazaio edo eragozpenak jartzen badira.
- f) Foru Dekretu honetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen ez badira.

2. Diru-laguntza jaso duen jarduketaren kostua baino finantzaketa handiagoa jasozten bada, laguntza itzuli egin beharko da.

18. oinarria. — Aurrekontuko partida

1. Deialdi honetako diru-laguntzak emateko 2020. urtean indarrean dagoen aurrekontu-muga honako hau da:

- a) Elkartek, fundazio pribatuak eta gizarte-ekimeneko kooperatibak: bederatzirehun eta berrogeita hamaika mila (951.000) euro, 2020ko 0405 G/334104/45100 (2012/0024 proiektua) aurrekontuko partidaren kontura.
- b) Udalak, udal erakunde autonomiadunak, eta mankomunitateak: laurehun eta hogeita hamar mila (430.000) euro, 2020ko aurrekontuko 0405 G/334104/43299 (2012/0024 proiektua) aurrekontuko partidaren kontura.

2. Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bateginaren (2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsi zen) 56. 3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Foru Dekretu honen babesean emaniko diru-laguntzak baliodun izateko baldintza bat bete beharko da: dagokion ekitaldian Foru Dekretutik eratorritako betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa izatea. Halakorik ez bada, balio gabe geratuko dira diru-laguntza horiek.

3. Muga hori era honetara banatuko da:

- a) Foru Dekretu honen II. kapituluko diru-laguntzen kasuan:
 - Elkarrentzat, fundazio pribatuentzat eta gizarte-ekimeneko kooperatibentzat: berrehun eta berrogei mila (240.000) euro.
 - Udalentzat, udal erakunde autonomoentzat, eta mankomunitateentzat: ehun eta hirurogeita hamabost mila (175.000) euro.



- b) Foru Dekretu honen III. kapituluko diru-laguntzen kasuan:
 - Elkarteentzat, fundazio pribatuentzat eta gizarte-ekimeneko kooperatibentzat: seirehun eta laurogeita hamahiru mila (693.000) euro.
 - Udalentzat, udal erakunde autonomoentzat, eta mankomunitateentzat: ehun eta hirurogeita bi mila (162.000) euro.
- c) Foru Dekretu honen IV. kapituluko diru-laguntzen kasuan:
 - Elkarteentzat, fundazio pribatuentzat eta gizarte-ekimeneko kooperatibentzat: hemezortzi mila (18.000) euro.
 - Udalentzat, udal erakunde autonomoentzat, eta mankomunitateentzat: hirurogeita hamazortzi mila (78.000) euro.
- d) Foru Dekretu honen V. kapituluko diru-laguntzen kasuan:
 - Udalentzat, udal erakunde autonomoentzat, eta mankomunitateentzat: hamabost mila (15.000) euro.

Honela banatuko da erabilgarri dagoen aurrekontu-muga:

- a) Udalerri bakar batean egiten diren erakusketa proiektuetarako: hiru mila (3.000) euro.
- b) Udalerri batzuetan egiten diren erakusketa koordinatuen proiektuetarako: hamabi mila (12.000) euro.

V. Kapitulu honetan dauden kategoria bietako baterako aurrekontuko kreditua agortzen ez bada, adjudikatu gabeko zenbatekoa gehitu ahal izango zaio beste kategoriarri.

4. Banaketa hori gutxi gorabeherakoa izango da, eta, Diru-laguntzen Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikulua 4. eta 5. zenbakien arabera, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren foru agindu bidez deialdia ebatzi baino lehen aldatu ahal izango da, onuradun talde beraren barruan. Kreditu erabilgarrien behin betiko deklarazioa zein kredituon banaketa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, dagozkien gastu-espeditenteen aldaketak egin ondoren. Horrek, baina, ez du ekarriko ez eskabideak aurkezteko epe berri bat irekitzea ez deialdia ebazteko epe berri bat hastea.

5. Eskabide guztiak ebatzi ondoren, guztira diru-laguntzetarako emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa bada, gastu-baimena deuseztatzea tramitatuko da, soberan den zenbatekoan.

II. KAPITULUA

GARRANTZI BEREZIKO KULTUR PROIEKTUETARAKO DIRU-LAGUNTZAK

19. oinarria.— *Garrantzi bereziko kultur proiektuetarako diru-laguntzen xedea*

- 1. Dekretu honen arabera diruz lagundu daitezkeen garrantzi bereziko kultur proiektuak dira gutxienezko aurrekontu araztu hau dutenak:
 - a) Ehun eta hogeita mila (120.000) euro, Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarteek, fundazio pribatuek eta gizarte-ekimeneko kooperatibek garatu badituzte.
 - b) Ehun eta hirurogeita hamabost mila (175.000) euro, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek, udal erakunde autonomoek eta mankomunitateek garatu badituzte.
- 2. Diru-laguntzaren eskabidean aurkeztutako proiektuak 2020ko ekitaldiaren barruan gauzatu beharko dira eta baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - a) Egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan duten elkarte eta fundazio pribatuek edo gizarte-ekimeneko kooperatibek edo Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek, udal erakunde autonomoek, edo udalerrien mankomunitateek garatutakoak izatea.
 - b) Jarduera Bizkaiko Lurralde Historikoan garatzea.



- c) Proiektuek espezializazio edo berezitasun maila handia izatea, eta garrantzi handikoak izatea Bizkaiko Lurralde Historikoko kultur arlorako. Kultur eremu hauei egin behar diete erreferentzia:
- 1) Ikusizko eta ikus-entzunezko arteak.
 - 2) Arte eszenikoak: antzerki-, dantza-, musika- edo zirku-ikuskitunak antzezteak, ematea edo eszenaratzea. Sarea ekimenaren barruan (Euskadiko Antzoki Sarea) dauden Bizkaiko antzokien urteko programazioa kanpo geratzen da.
 - 3) Kultura tradizionala (musika, dantza eta euskal folklorea).
 - 4) Kultur gaiei buruzko ikerketa eta garapena.
 - 5) Pentsamendua eta debatea.
 - 6) Argitalpenen edizioa, doakoak ez badira eta beste argitalpen nagusi batzuen gehigarriak ez badira. Argitalpen horiek baldintza hauek bete behar dituzte:
 - Aldizkakoak izatea: dekretu honen ondoreetarako, urtean zenbaki bat baino gehiago editatzen duen argitalpena joko da aldizkako argitalpentzat.
 - Literaturari buruzkoak izatea (narratiba, poesia, dramaturgia eta saiakera) edo diru-laguntzaren xede diren kultura arloetako edozeini buruzkoak.

20. oinarria. — Garrantzi bereziko proiektuen ebaluazio-irizpideak

Kapitulu honen babesean aurkeztutako proiektuen ebaluazioa egiteko, beheko irizpideak eta haien haztapena hartuko dira kontuan. Gehienez, 100 puntu emango dira, honela banatuta:

1. Proiektuak Bizkaiko kultur eskaintzari egiten dion ekarpena: kalitate, kultur eragin eta eragin sozialari dagokionez, proiektuaren garapenak Bizkaiko kultur eskaintzaren testuinguruan egingo duen ekarpena baloratuko da. Gehienez ere berrogei (40) puntu emango dira.
2. Kulturaren ikonoak diren udalerrietan garatzen direnez, Bizkaiko Lurralde Historikoko jarduera ekonomikoaren sortzaile garrantzitsuak diren kultur proiektuak. Gehienez ere hogeita hamar (30) puntu emango dira, honela banatuta:
 - a) Bilbon garatzen diren proiektuei hogeita hamar (30) puntu emango zaizkie.
 - b) Barakaldon, Basaurin, Getxon, Leioan, Portugaleten, Santurtzi eta Sestaon garatzen diren proiektuei hogeita bost (25) puntu emango zaizkie.
 - c) Gainerako proiektuei hogeita (20) puntu emango zaizkie.Proiektua herri batean baino gehiagotan garatzen bada, punturik gehien dagoen udalerrian garatutako moduan baloratuko da.
3. Proiektuaren finantzaketa-maila. Kontuan hartuko da ea erakundeek ahalegina egiten duten proiektuaren bideragarritasuna indartzeko balioko duen kanpoko finantzaketa lortzeko.

Finantzaketa-maila honela kalkulaturako ratioak adieraziko du: aurrekontu banakatuan agertzen diren sarreraren batuketan (sarrerok hauek dira: diru-laguntza publikoak, erakunde pribatuen ekarpenak, jardueraren berezko sarrerak eta beste sarrera batzuk) zati aurrekontu banakatuko sarrera guztien batura: 30 puntu, gehienez.

Puntuazioa honela kalkulaturako da: finantzaketa-maila handiena duen proiektuari 30 puntu emango zaizkio, eta, ondoren, hiruko erregela erabiliko da puntuak banatzeko. Lortutako puntuazioan zenbaki hamartarrik egonez gero, zenbaki oso hurbilenera biribilduko da puntuazioa.

Proiektu guztiek finantzaketa propioa izan behar dute, hain zuzen ere, aurkeztutako aurrekontuaren %35ekoa, gutxienez. Finantzaketa propioa hau da: erakundeak bere baliabideen bidez eta beste iturri publiko edo pribatu batzuen bidez (Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen zaiona kenduta) lortzea aurreikusten duena.



Epaimahaiaren iritziz gutxienez 70 puntu lortzen ez dituzten proiektuek ez dute diru-laguntzarik jasoko.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, aurkeztutako proiektuaren aurrekontu araztuaren %65 izango da (behin finantzatzekoak ez diren kontzeptuei dagozkion arazketak eginik).

Udalen, udal erakunde autonomoen, eta udalerrien mankomunitateen kasuan, diru-laguntza ezin da 50.000,00 eurotik gorakoa izan, ezta erakunde eskatzailerak eskatutako zenbatekoa baino handiagoa ere.

Elkarteen, fundazio pribatuen eta gizarte-ekimeneko kooperatiben kasuan, diru-laguntza ezin da 60.000,00 eurotik gorakoa izan, ezta erakunde eskatzaileak eskatutako zenbatekoa baino handiagoa ere.

III. KAPITULUA

KULTUR INTERESEKO PROIEKTUETARAKO DIRU-LAGUNTZAK

21. oinarria. — Kultur intereseko proiektuetarako diru-laguntzen xedea

1. Dekretu honen arabera diruz lagundu daitezkeen kultur intereseko kultur proiektuak dira balio artistikoa eta sortzailea dela medio Bizkaiko kultur eskaintzari ekarpen garrantzitsua egingo diotenak, udalerritik kanpo ere eragina dutenak eta gutxieneko aurrekontu araztu hau dutenak:

- a) Zortzi mila (8.000) euro edo hortik gorakoa, eta ehun eta hogeita mila (120.000) baino gutxiagokoa Bizkaiko Lurralde Historikoko elkarrekin, fundazio pribatuek eta gizarte-ekimeneko kooperatibek garatu badituzte.
- b) Hamar mila (10.000) euro edo hortik gorakoa, eta ehun eta hirurogeita hamabost mila (175.000) euro baino gutxiagokoa Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek, udal erakunde autonomoek, eta mankomunitateek garatu badituzte.

Diruz lagundu daitezke 2020ko ekitaldian Bizkaian garatzen diren kultur intereseko proiektuak, kultur arlo hauetakoak badira:

- a) Arte eszenikoen adierazpenak: antzerki-, dantza-, musika- edo zirku-ikuskizunak antzeztea, ematea edo eszenaratzea. Sarea ekimenaren barruan (Euskadiko Antzoki Sarea) dauden Bizkaiko antzokien urteko programazioa kanpo geratzen da.
- b) Folklorea.
- c) Kultur ikerketa eta garapena.
- d) Ikusizko eta ikus-entzunezko arteak.
- e) Pentsamendua eta debatea.
- f) Argitalpenen edizioa, doakoak ez badira eta beste argitalpen nagusi batzuen gehigarriak ez badira. Argitalpen horiek baldintza hauek bete behar dituzte:
 - Aldizkakoak izatea. Dekretu honen ondoreetarako, urtean zenbaki bat baino gehiago editatzen duen argitalpena joko da aldizkako argitalpentzat.
 - Literaturari buruzkoak izatea (narratiba, poesia, dramaturgia eta saiakera) edo diru-laguntzaren xede diren kultura arloetako edozeini buruzkoak.

22. oinarria. — Kultur intereseko proiektuen ebaluazio-irizpideak

Aurkeztutako proiektuen ebaluazioa egiteko, beheko irizpideak eta haien haztapena hartuko dira kontuan. Gehienez, ehun (100) puntu emango dira, honela banatuta:

1. Proiektua zer diziplina kulturetan sartzen den eta zer ezaugarri egiten duten aberatsago: Hogeita hamabost (35) puntu, gehienez.

Irizpide honen ebaluazioa eta puntuen banaketa honela egingo dira:

- a) Diziplina guztiei hogeita (20) puntu emango zaizkie, interes berezikoei izan ezik: azken horiei hogeita zazpi (27) puntu emango zaizkie.

Diziplina hauek hartuko dira interes berezikotzat: organo musika, euskal kultura tradizionala, dantza klasikoa, dantza garaikidea, joera berriak, debatea eta pentsamendua, musika garaikidea, antzezpen popularrak eta literatura.



- b) Gainera, proiektuaren inguruabar zein ezaugarri hauek ere ebaluatuko dira:
- 1) Bi (2) puntu, urteurren hauetako bat denean: 25, 50, 75 eta 100.
 - 2) Bi (2) puntu, proiektuak beste jarduera batzuk ere baditu, berez proiektu kulturalari lotuta ez daudenak baina hura indartu edo osatzeko balio dutenak.
 - 3) Bi (2) puntu, proiektua lau egunean zehar edo egun gehiagotan egiten bada.
 - 4) Bi (2) puntu, proiektu berritzailea edo diziplinartekoa bada.
2. Proiektuak Bizkaiko kultur eskaintzari egiten dion ekarpena: Hogeita bost (25) puntu, gehienez.
- Kalitateari, kultur eraginari eta eragin sozialari dagokionez, proiektuaren garapenak Bizkaiko kultur eskaintzaren testuinguruan egingo duen ekarpena baloratuko da.
3. Proiektua garatzeko lurralde-eremua, kultura-eskaintzaren lurralde mailako oreka ahalbidetzeko: Hogeita bost (25) puntu, gehienez.
- Eskala honen arabera banatuko dira puntuak:
- Bilbo: 10 puntu.
 - Barakaldo: 12 puntu.
 - Nerbioi/Ibaizabal eta Ezkerraldea: 15 puntu.
 - Txorierri, Mungialdea, Uribe Kosta, Arratia, Durangaldea eta Busturialdea: 20 puntu.
 - Enkarterri, Lea Artibai eta Urduña: 25 puntu.
4. Euskararen presentzia kultur proiektuan: bost (5) puntu.
- Euskara proiektuaren funtsezko elementua izanik, proiektua osorik euskaraz garatzen bada, bost (5) puntu emango zaizkio. Horrela ez bada, ez zaio punturik emango.
5. Proiektuaren finantzaketa-maila edo kulturaren egindako inbertsioa: hamar (10) puntu gehienez. Puntuak honela banatuko dira:
- a) Finantzaketa-maila: elkarteen, fundazio pribatuen eta gizarte-ekimeneko kooperatibeen kasuan, kontuan hartuko da zer ahalegin egiten duten proiektuaren bideragarritasuna indartzeko balioko duen kanpoko finantzaketa lortzeko.
- Finantzaketa-maila honela kalkulaturako ratioak adieraziko du: aurrekontu banakatuan agertzen diren sarreraren batuketa (sarrerok hauek dira: diru-laguntza publikoak, erakunde pribatuen ekarpenak, jardueraren berezko sarrerak eta beste sarrera batzuk) zati aurrekontu banakatuko sarrera guztien batura.
- Honela jokatu da puntuazioa kalkulatzeko: Finantzaketa-maila handiena duen proiektuari 10 puntu emango zaizkio, eta, ondoren, hiruko erregela erabiliko da puntuak banatzeko. Lortutako puntuazioan zenbaki hamartarrik egonez gero, zenbaki oso hurbilenera biribilduko da puntuazioa.
- b) Kulturaren egindako inbertsio-ahalegina: Hamar (10) puntu, gehienez.
- Udalen, udal erakunde autonomoen, eta udalerrien mankomunitateen kasuan hartuko da kontuan inbertsio-ahalegin hori.
- Horretarako, eragiketa hau egingo da: udalak kulturarako duen aurrekontua (euskara, Kabalgata, San Juan Jaiak, Olentzero, gazteria eta kirolak, hezkuntza eta gizarte-ekintza aparte utzita) zati eskabidea egiten den egunean erroldatutako biztanle-kopurua, indarrean dagoen azken udal erroldaren arabera. Ratio handiena lortzen duenari 10 puntu emango zaizkio, eta gainerako puntuak hiruko erregela bat erabiliz banatuko dira. Lortutako puntuazioan zenbaki hamartarrik egonez gero, zenbaki oso hurbilenera biribilduko da puntuazioa.



Proiektu guztiek finantzaketa propioa izan behar dute, hain zuzen ere: Aurkeztutako aurrekontuaren %50, Bizkaiko udalen, udal erakunde autonomoen, eta udalerrien mankomunitateen kasuan.

Aurkeztutako aurrekontuaren %35, Bizkaiko kultura-elkarte eta -fundazio pribatuen eta gizarte-ekimeneko kooperatiben kasuan.

Finantzaketa propioa hau da: erakundeak bere baliabideen bidez eta beste iturri publiko edo pribatu batzuen bidez (Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen zaiona kenduta) lortzea aurreikusten duena.

Epaimahaiaren iritziz 60 puntu gutxienez lortzen ez dituzten proiektuek ez dute diru-laguntzarik jasoko.

Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa aurkeztutako proiektuaren aurrekontu araztuaren %50 izango da, ezin finantza daitezkeen kontzeptuen arazketak egin ondoren, Bizkaiko udalen, udal erakunde autonomoen, eta udalen mankomunitateen kasuan, eta %65 izango da, ezin finantza daitezkeen kontzeptuen arazketak egin ondoren, Bizkaiko elkarte eta fundazio pribatuen eta gizarte-ekimeneko kooperatiben kasuan. Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa inola ere ez da 35.000,00 (hogeita hamabost mila) eurotik gorakoa izango.

Ematen den diru-laguntza ezin da izan erakunde onuradunak eskatutako zenbatekoa baino handiago izan.

IV. KAPITULUA

«BIZKAIKO JAIALDIAK 2020»-ETARAKO DIRU-LAGUNTZAK

23. oinarria.— «Bizkaiko Jaialdiak 2020»-etarako diru-laguntzen xedea

1. 2020an Bizkaiko Lurralde Historikoan «Bizkaiko Jaialdiak» egitea sustatzeko jarduerak diruz lagunduko dira, jaialdiek baldintza hauek betetzen badituzte:
 - a) Arte eszenikoetako ikuskizunak edukitzea: musika, dantza eta/edo antzerkia.
 - b) Gutxienez ere lau emanaldi izatea (kontzertuak, errepresentazioak, eszenarazteak edo erakustaldiak).
 - c) «Bizkaiko Jaialdiak» sarean sartuta egotea:
 - Arrigorriagako Udala: «Musika Astea».
 - Bakioko Udala: «Musika Astea».
 - Bermeoko Udala: «Nazioarteko Musika Astea».
 - Balmasedako Udala: «Udazkeneko Kontzertuak».
 - Elorrioko Udala: «Musikaire».
 - Ermuko Udala: «Udazkeneko Kontzertuak».
 - Gernika-Lumoko Udala: «Udako Musika Jardunaldiak».
 - Gornizko Udala: «Musika Jaialdia».
 - Karrantzako Udala: «Pozalaguako Musika Jaialdia».
 - Leioako Udala: «Musika arimarekin».
 - Ondarroako Udala: «Pedro M.^a de Unanue Jaialdia».
 - Plentziako Udala: «Musika Astea».
 - Zallako Udala: «Zallako Musika Astea».
 - Itxas-Soinua Abesbatza Elkarteak: «Lekeitioko Itxas Soinua Nazioarteko Musika Jaialdia».
 - Bartolomé Ertzilla fundazioa: «Musika Astea».
 - Amorebieta-Etxanoko Ametx erakunde autonomoa: «Eleizetan».



- d) Aurrekontu araztua zortzi mila (8.000) eurokoa edo hortik gorakoa izatea Bizkaiko elkartean, fundazio pribatuen eta gizarte-ekimeneko kooperatiben kasuan, eta hamar mila (10.000) eurokoak izatea Bizkaiko udalen, udal erakunde autonomoen, eta mankomunitateen kasuan.

24. oinarria. — «Bizkaiko Jaialdiak 2020»-ko balorazio-irizpideak

Jaialdien ebaluazioa egiteko, beheko irizpideak eta haien haztapena hartuko dira kontuan. Gehienez, 100 puntu emango dira, honela banatuta:

1. Jaialdiak Bizkaiko kultur eskaintzari egiten dion ekarpena: kalitate, kultur eragin eta eragin sozialari dagokionez, proiektuaren garapenak Bizkaiko kultur eskaintzaren testuinguruan egingo duen ekarpena baloratuko da: 10 puntu, gehienez.
2. Jaialdia garatzeko lurralde-eremua, kultura-eskaintzaren lurralde mailako oreka ahalbidetzeko: 30 puntu, gehienez.

Bereziki baloratuko dira hiriburutik (Bilbo) urrun dauden eskualdeetan garatuko diren proiektuak, eta 15 eta 30 puntu artean emango dira, distantziaren arabera (zenbat eta urrunago egon, orduan eta puntu gehiago).

Eskala honen arabera banatuko dira puntuak:

- a) Bilbotik hurbil dauden eremu geografikoak: 15 puntu.
 - b) Bilbotik hurbil dauden eremu geografikoak: Mungialdea eta Uribe Kosta: 20 puntu.
 - c) Bilbotik urrun dauden eremu geografikoak: Durangaldea eta Busturialdea: 25 puntu.
 - d) Bilbotik oso urrun dauden eremu geografikoak: Enkarterri eta Lea-Artibai: 30 puntu.
3. Jaialdietan musika-, antzerki- edo dantza-taldeek parte hartzea: Gehienez ere 30 puntu eman daitezke, honela banatuta:
 - a) Jaialdian parte hartzen duten elkarte guztiek egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan badute: 15 puntu.
 - b) Jaialdiaren erakunde parte-hartzaile bat, gutxienez, Bizkaia ez den Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde historikokoa bada: 20 puntu.
 - c) Jaialdiaren erakunde parte-hartzaile batek, gutxienez, Estatuko beste autonomia-erkidego batean badu egoitza: 25 puntu.
 - d) Jaialdiaren erakunde parte-hartzaile batek, gutxienez, Europar Batasunean edo beste estaturen batean badu egoitza: 30 puntu.
 4. Jaialdiaren finantzaketa-maila: 10 puntu, gehienez.

Finantzaketa-maila honela kalkulaturako ratioak adieraziko du: aurrekontu banakatuan agertzen diren sarreraren batuketa (sarrerok hauek dira: diru-laguntza publikoak, erakunde pribatuen ekarpenak, jardueraren berezko sarrerak eta beste sarrera batzuk) zati aurrekontu banakatuko sarrera guztien batura.

Puntuazioa honela kalkulatu da: finantzaketa-maila handiena duen proiektuari 10 puntu emango zaizkio, eta, ondoren, hiruko erregela erabiliko da puntuak banatzeko. Lortutako puntuazioan zenbaki hamartarrik egonez gero, zenbaki oso hurbilenera biribilduko da puntuazioa.

5. Arte eszenikoen arloan Bizkaiko Foru Aldundiaren bekadun izan diren langileak ikuskizuna eskaintzeko kontratatuta dituzten jaialdiak. 20 puntu, gehienez.
 - a) Bekadun bat kontratatuta badago: 10 puntu.
 - b) Bekadun bi kontratatuta badaude: 15 puntu.
 - c) Bekadun bi baino gehiago kontratatuta badaude: 20 puntu.

Proiektu guztiek finantzaketa propioa izan behar dute, hain zuzen ere, diru-sarrera guztien zenbatekoaren %30ekoa, gutxienez. Finantzaketa propioa hau da: erakundeak bere baliabideen bidez eta beste iturri publiko edo pribatu batzuen bidez (Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen zaiona kenduta) lortzea aurreikusten duena.



Epaimahaiaren iritziz 55 puntu gutxienez lortzen ez dituzten proiektuek ez dute diru-laguntzarik jasoko.

Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa aurkeztutako proiektuaren aurrekontu araztuaren %70 izango da, ezin finantza daitezkeen kontzeptuen arazketak egin ondoren, eta inola ere ez da izango hogeita hamabost mila (35.000) euroko zenbatekoa edo erakunde onuradunak eskatutako zenbatekoa baino handiagoa.

V. KAPITULUA

GARRANTZI BEREZIKO PRAKTIKA ARTISTIKO GARAIIKIDEAK ZABALTZEKO PROGRAMATZEN ERAKUSKETAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAK

25. oinarria. — Diru-laguntzaren xedea

1. Kapitulu honen babesean diruz laguntzen diren jarduerak hauek izango dira: Bizkaiko Lurralde Historikoko udal erakusketa-aretoek edo Bizkaiko udalek itundutako erakusketa-aretoek 2020. urtean garrantzi bereziko praktika artistiko garaikideak zabaltzeko programatzen dituzten erakusketa koordinatuak.

Diru-laguntza jasoko duten erakusketak 2020. urtean hasi behar dira, eta honelakoak izan daitezke:

- a) Udalerrri bakar batean egiten diren erakusketak: udalerrri bakar baterako programatuta dauden erakusketak, gutxienez ere bi asteko iraupena dutenak.
- b) Udalerrri batzuetan egiten diren erakusketa koordinatuak: gutxienez ere bi udalerritan programatutako erakusketak, gutxienez hiru asteko iraupena dutenak eta erakusketari buruzko alderdi guztietarako komisario/arduradun bat dutenak (erakusketaren parte-hartzaileak aukeratzeko, katalogoa zuzentzeko, komunikazioa egiteko eta arte garaikidearen sustapen eta zabalkundea lortzeko beharrezkoak diren beste alderdi guztietarako).

Komisarioa da Artearen Historian, Estetikan edo Arte Ederretan prestakuntza duen pertsona eta/edo galerietan, museoetan, fundazioetan, eta abarretan komisario ibili dena.

2. Kapitulu honi dagokionez, diruz laguntzeko gastutzat joko dira honako hauek:
 - a) Erakusketarako katalogoaren edizioa (diseinua, argazkiak, testuak idaztea eta inprimatzea).
 - b) Erakusketako komisariotza.
 - c) Artelanak dauden tokitik erakusketa aretora garraiatzea eta jatorrizko lekura itzultzea, bai eta areto batetik beste batera garraiatzea ere. Halaber, erakusketari datzekien aseguruak ere diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat joko dira.
 - d) Bisita gidatuak.
 - e) Artisten ordainsariak.
 - f) Erakunde eskatzaileak erakusketarako berariaz kontratatutako langileak.
 - g) Erakusketaren publizitatea.

Ez dira diruz lagundu daitezkeen gastuak izango erakusketa-aretoek berek sortutako gastuak: mantentzea, erakundearen egiturako langileak, erakusketarekin zuzeneko lotura duen materialaren erosketak, eta abar.

26. oinarria. — Ebaluazio-irizpideak

1. Udalerrri bakar batean egiten diren erakusketa finantzatzeko diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko, beheko irizpideak eta haien haztapena hartuko dira kontuan. Gehienez, 100 puntu emango dira, honela banatuta:

- a) Erakusketaren katalogoaren edizioa: 15 puntu. Artearen munduko profesional batek idatzi behar du katalogoa, eta, gutxienez ere, erakusketako artelanen balorazio kritiko bat jaso behar du, lanen testuingurua kontuan hartuta.



- b) Bisita gidatuak: 20 puntu gehienez:
- 1) Bisita gidatu bat: 5 puntu.
 - 2) Bi edo hiru bisita egitea, haietako bat gutxienez euskaraz: 15 puntu.
 - 3) Gutxienez ere lau bisita gidatu egitea, haietako bi gutxienez euskaraz: 20 puntu.
- c) «Ertibil-Bizkaia» Ikus-arten Erakusketa Ibiltarirako deialdietan saritutako artisten parte-hartzea: 20 puntu, gehienez:
- 1) Artista baten parte-hartzea: 10 puntu.
 - 2) Artista biren parte-hartzea: 15 puntu.
 - 3) Hiru artista edo gehiagoren parte-hartzea: 20 puntu.
- d) Erakusketan Bizkaiko artistek parte hartzea: 10 puntu, gehienez:
- 1) Bizkaiko artista bat edo bi badira: 5 puntu.
 - 2) Bizkaiko hiru artista edo gehiago badira: 10 puntu.
- Horretarako, Bizkaiko artistatzat joko dira Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatutakoak eta/edo jaiotakoak.
- e) Erakusketaren kalitate artistikoa: baloratuko da abangoardiako artea, sormen-berrikuntza dakarrena, eta sorkuntza alternatiboa eta arte-joera berriak sustatzen dituzten proiektuak lehenetsiko dira. 25 puntu, gehienez.
- f) Komisarioa: 10 puntu.
2. Udalerrri batzuetan egiten diren erakusketa koordinatuak finantzatzeko diru-laguntzen zenbatekoa zehazteko, beheko irizpideak eta haien haztapena hartuko dira kontuan. Gehienez, 100 puntu emango dira, honela banatuta:
- a) Erakusketaren katalogoaren edizioa: 10 puntu.
- b) Bisita gidatuak: 25 puntu gehienez:
- 1) Bisita gidatu bat udalerrri bakoitzean: 5 puntu.
 - 2) Bi edo hiru bisita gidatu udalerrri bakoitzean, haietako bat gutxienez euskaraz: 15 puntu.
 - 3) Lau bisita gidatu edo gehiago udalerrri bakoitzean, haietako bi gutxienez euskaraz: 25 puntu.
- c) «Ertibil-Bizkaia» Ikus-arten Erakusketa Ibiltarirako deialdietan saritutako artisten parte-hartzea: 20 puntu, gehienez:
- 1) Artista baten parte-hartzea: 10 puntu.
 - 2) Artista biren parte-hartzea: 15 puntu.
 - 3) Hiru artista edo gehiagoren parte-hartzea: 20 puntu.
- d) Erakusketan Bizkaiko artistek parte hartzea: 10 puntu, gehienez:
- 1) Bi eta bost artista bitartean: 5 puntu.
 - 2) Sei artista baino gehiago: 10 puntu.
- Horretarako, Bizkaiko artistatzat joko dira Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatutakoak eta/edo jaiotakoak.
- e) Erakusketaren kalitate artistikoa: baloratuko da abangoardiako artea, sormen-berrikuntza dakarrena, eta sorkuntza alternatiboa eta arte-joera berriak sustatzen dituzten proiektuak lehenetsiko dira: 25 puntu gehienez.
- f) Erakusketa zenbat aretotan jarriko den ikusgai: 10 puntu gehienez.
- 1) 3-4 aretotan: 5 puntu.
 - 2) 5 areto edo gehiagotan: 10 puntu.
3. Udalerrri batean egiten diren erakusketa eskabideak ezetsiko dira baldin eta gutxienez ere berrogei (40) puntu lortu ez badituzte; udalerrri batzuetan egiten diren koordinatuetarako eskabideak, berriz, baldin eta gutxienez ere berrogeita bost (45) puntu lortu ez badituzte.



4. Udalerri bakar batean egiten diren erakusketa proiektuetarako gehieneko diru-laguntzen zenbatekoa jardueraren aurrekontu osoaren %50 izango da, gehienez, aurrekontua behin aztertu eta dagozkien doikuntzak egin ostean, eta ez da inola ere mila (1.000) eurotik gorakoa izango.

Udalerri batzuetan egiten diren erakusketa koordinatuen proiektuetarako gehieneko diru-laguntzen zenbatekoa jardueraren aurrekontu osoaren %70 izango da, gehienez, proiektu bakoitzerako, aurrekontua behin aztertu eta dagozkien doikuntzak egin ostean, eta ez da inola ere bi mila bostehun (2.500) eurotik gorakoa izango.

AZKEN XEDAPENAK**Azken Xedapenetako Lehenengoa. — *Ahalmena ematea***

Ahalmena ematen zaio Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari, Foru Dekretu honetan xedatutakoa ondoen garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken Xedapenetako Bigarrena. — *Indarrean jartzea*

Foru Dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2019ko abenduaren 10ean.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ